

ERREPORTAJEA: HIRU BIDAIA / AIA: JAKOBA ERREKONDO
ELKARRIZKETA: JESUS MARI PERONA

149824 422400A
K 75
754

KARKARA



Agurtzane Txiki

6. literatur lehiaketa

ORIO / AIA

OINARRIAK

- 1 'Euskaraz Gazte' 6. literatur lehiaketaren helburua Idazteko zaletasuna suspertzea da Orioko eta Aiako gazte-jendearen artean.
- 2 Lehiaketara aurkezten diren lanak euskaraz idatziak izango dira.
- 3 Lanak jatorrizkoak eta inon argitaratu gabeak izango dira. Ez da onartuko beste lehiaketaren batean saria jaso duen lanik eta, ezta ere, beste hizkuntzaren batean idatzi eta lehiaketarako euskaratutakonik.
- 4 Lehiaketan parte hartzen dutenek oriotarrak edo aiarrak izan behar dute edo, bestela, Orion edo Aian bizi.
- 5 Lehiaketan parte hartzeko 16 urtetik gorako izan behar da.
- 6 Lanen Iuzera librea izango da.
- 7 Lehiaketak bi modalitate izango ditu: ipuina eta bertsoa (edo olerkia).
- 8 Lanak aurkezteko era :

Lanak makinaz idatzita aurkeztu behar dira.

Lanak, onartua izateko, titulua besterik ez du izango agerian. Idazlearen izena ezin izango da inon alpatu. Lanarekin batera kartazal itxi bat aurkeztu beharko da; barruan egilearen datuak jasoko dituena eta kanpoan bere lanaren titulua besterik agertuko ez duena.

Adierazi beharreko datuak: egilearen izen-deiturak, adina, helbidea eta telefonoa.
- 9 Pertsona batek ezin dezake sari bat baino gehiago jaso modalitate bakoitzean.
- 10 Sariak hauek izango dira:

Ipuinen modalitatea:
 1. saria: 40.000 PTA
 2. saria: 30.000 PTA
 3. saria: 20.000 PTABi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa

Bertso edo olerkien modalitatea:
 1. saria: 40.000 PTA
 2. saria: 30.000 PTA
 3. saria: 20.000 PTABi akzesit, bakoitzaz 10.000 PTAKoa
- 11 Epaimahaia . Epaimahaia Orioko Udaleko ordezkari batek, Aiako Udaleko ordezkari batek, KARKARA aldizkariko kide batek eta Euskaltegiko irakasle batek osatuko dute.

Epaimahaia hutsik utz ditzake sariak.
- 12 Lanak aurkezteko tokia eta epea. Lanak Orioko Udaleko Euskara Zerbitzuan edo Aiako kultur etxearen aurkeztuko dira. Abenduaren 18a izango da azken eguna.
- 13 Antolatzaileek berea izango dute saritutako lanak argitaratzeko eskubidea. Gainontzeko lanak itzuli egingo zaizkio eskatzen dituenari,

KARKARA

Orio eta Alako aldizkaria

Kultur etxe
20810 ORIO
Tel. 943.83.15.27

Posta elektronikoa:
karkara@topagunca.jalgi.com

LEGE GORDAILUA SS 346/90

ISSN 1132-1105

TIRADA 1.600 ale

EDITOREA

KARKARA TALDEA

kultur elkartea

ZUZENDARIA

Ainara Peña

ERREDAKTIO TALDEA

Miren Etxeberria, Iñigo Fernandez, Jakes Goikoetxea, Ana G. de Txabarri, Ana Iturain, Iñaki Iturain, Nere Manterola, Ainara Peña, Igor Salsamendi, Jabi Zabalaeta

ALAKO ERREDAKZIOA

Agurtzane Amillaga

PUBLIZITATEA

Ainara Peña

ALAKO BONETARD LAGUNTAZALEAK

Alazne Aldanondo, Imanol Esoain, Antxon Ibarguren, Marina Lertxundi, Mikel Marquez

ARGAZKIAK

Ana G. de Txabarri,
Azalekoa: Jagoba Manterola

DISEÑO

IZALIA Goio Arana

BARRUNDA Jabi Zabalaeta

PUBLIZITATEA Iñigo Gaztañazpi

AKZEN ORRIALDEKO IRURIA

Juan Jose Egibar

BANATZAILEA

Miguel Angel Sanz

IMPRESIONES

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARAk ez du bere gain hartzen aldizkarien adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunak.

KARKARA argitaratutakoa berreman dalteke, osorik edo zatika, baldin eta iturtia sipatzen bada.

BERTSO JARRIAK

Txiki Larrañagari

Bertsotzaren idazleak: Txiki Larrañagari

Zarautzen zinen arraunen hasi,
baina ez oso gustora,
eta holaxe eterri zinen
ilusioz Driora.
Ibiliz zinen denbora batez,
Txiki, inondik inora,
zuk zenuen, zuk, ganora,
garai onerik gogora,
maixutasuna zuk bazeñula
ikusi genun gerora,
makina aldi oihu egin dezu
Aupa Orio eta goral! (bis)

Jartzen zenekin zure muntilak
prest eta bero estabean,
horixe ez du inorrek izan
sekula ere zalantzan,
eta bandera jaistene zuñeten
jartzen zenitu martxan,
handienekin balantzan,
itsasoarekin dantzan.
Larogeita lau garaipen eta
hogriatik bi Kontxan.
Nabaria da mundu horretan
zu bezalakorik etzan. (bis)

Zu zinen gure arraunlarien
nagusi edota maiatze,
den-ilenak tinko jarri zenitun
zuk eterri bezain laster.
Gure ondotik aldendu zera,
ezin dugu egin ezer,
ez zenun jokatu dker,
zinen hemen gatz ta piper,
zurekin pasa ditugu denok
makina momentu eder.
Guk ez zaitugu inoiz ahaztuko,
Txiki, bihotzetz mila esker. (bis)

IMANOL ESOAIN

1998KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulu bat	1.500 PTA
Bi modulu	3.000 PTA
Hiru modulu	4.500 PTA
Lau modulu	6.000 PTA
Sel modulu	9.000 PTA
Orialde erdia	13.500 PTA
Orialde osoa	27.000 PTA

► Prezio hauek zenbaki baterako balio dute.
Publizitatea urte osorako kontratatzeko dutenei % 10eko deskontua egiten zaien prezio hauen galnean.



Gipuzkoako Foru Diputazioak
diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak
diruz lagundutako aldizkaria

Jorge Oteiza

Orain dela hogeitzean, kaleen izenak aldatu zirenean, egin zen saia kera bat gure herriarrik unibertsalenari kale bat eskaizko. Gestioak gaizki aterazten, eta ez zen horrela gertatu. Geroztik —bat dela, bestea dela— gauzak berdin daude.

Oteiza zahartzen ari da, urteak badoaz, eta ormenaldi ugari jasotzen ari da beste hainbat herritan, beste probintziatan, eta instituzio ugariren eskutik.

Eta... zer egiten da Oteizaren jaio terrian? Ixoink?

Nire proposamena hau da:

KARKARAk egin dezala inuesta bat, oriotarrei iritzia esku tuz honi buruz. Esan dezatela zein kale edo zein toki dedikatu behar zaion horren ahaztuta dauagun seme honi.

Nik Eusko Gudari kalea dedikatuko nioke, eta Oteizaren lanetako bat jarriko nuke kalearen bukaeran, errotondako hartzan. Izan liteke beste kaleren bat ere. Oriotarrei galdeku beharko litzaieke zein den proposatzen duten aukera eta nola egin.

Inkestaren emaitzak ikusita, elkarrizketa bat egin beharko litzateke Jorge Oteizarekin, eta hari jakinarazi zein proposamen dauden.

Aukerarik txarra, behintzat, hau da: Jorge hil arte itxoitea, eta gero zurikerian hastea.

LUIS CISNEROS

*Eskertzen diogn Luis Cisneros
gurganako duen uste ona; baina, benetan,
iruditzen zaigu gure abalmenetik kanpo
dagoen gauza eskatzen digula.*

*Ez zaigu proposamena gaizki
iruditzen, baina lan hori beste batek
egiten badu, guk nabiaga.*

KARKARA TALDEA

Kukuarriko Ama Birjina

Kukuarriko gurutzea egin genuen garaien Oteizari esku tu nioke aita Ama Birjin bat Kukuarriko. Baiezko erantzun zidan.

Behin jarrita zegoela, ganberro batzuek puskatu egin zuten Ama Birjinak eskuan zeukan kukua. Oteizari esan nioke aita Ama Birjin berria egingo zuen. Lan asko zuela erantzun zidan, eta Santion lan egiten zuen Reinaldo eskultorearekin batera egin zuen bigarren Ama Birjina, gaur egun

Gutunetarako **OHARRAK**

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAren buzoian utz daitezke (udal-letxe atzeo portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxeen). Posta elektroniko ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.jalgi.com

KARKARAk ez du argitaratu ize-nik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratu dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAk bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

Kukuarri dagoena. Bigarren Ama Birjina 1977an jarri zen.

Uste nuen Ama Birjin zaharra. Oteizaren estudiola, Enbileneko etxera, eraman zutela. Urteak pasa eta Oteizarekin izan nintzen duela hilabete batzuk. Galdu nioea berak zeukan Kukuarriko Ama Birjin zaharra eta crantzun zidan ezetz, eta ea nik arrastoren bat ateratzetzen nuen.

Beraz, norbaitek Oteizaren Kukuarriko lehen Ama Birjinaz zerbaite jakinez gero, eskertuko nioke haren berri ematea,

PAKO BARJAKOBA

Sufritu, amestu, irabazi, kontatu

Gure amak kontatzen du bere aita, Leon Lizaso, Orioko traineruko arraunlaria zela 1916an eta Txokolatek eta Sarasuak irabazi egin zutela Donostian 1934an. Hain zirela gizonak!

Gure aitak kontatzen du Goikokalen emakumeek sufritu egin zutela herriko radio bakanra entzunez, Josepa Herrerean, estropadaren berri jakin nahian, eta osaba Juan Jose eta osaba Santi hondartzara joaten zirela bihotzekoa izateko heldurrez.

Gure aitona kontatzen zuen estropalariek txuleak jaten zituztela Hendaia etxeko arkupetan eta, behin, Franco banderarik gabe gelditu zela,

Oriok irabazi ziolako Pedreñari.

Oriolar guztiok itxaferoak, txarangak eta errezibimenduak ditugu hautzareko oroitzapenak; niri ez zait sekula ahaztuko Altzerri udaletxea baino handiagoko bandera astintzen.

Garai batean irabazleei bandera Konstituzio plazan ematen zieten, eta niki uste dut oihura eder hori berreskuratu egin beharko genukeela, txapeldunei behar bezalako omena egiteko, nahiz eta irabazleak ez izan nire bihotzko kolorekoak.

Nire ilobak esaten du Oriok irabaziko duela Kontxako bandera, berriz ere sufrizko, berriz ere amesteko... eta gero kontatzeko.

Aupa mutilak! Eskerrik asko!

GABRIEL LOIDI

(DVN ARGITARATUA, IRAILA HASIERAN)

Salatxoren eskerrak

Salatxo abesbatzak eskerrak eman nahi dizkie urriaren 17an Orioko elizan eskainitako kontzertura agertu ziren guztiei. Jende mordoa hurbildu zen bertara, gurekin bosgarren urteurrena ospatzera. Eliza, Udala eta, batez ere, baziak eskertu nahi diegu,

SALATXO ABESBATZA

KARKARAri erantzunek

Azken KARKARA, *Zoriatxarrak* izeneko atalean, Orioko Schumacher-ak kritikatzen ziren. Hori dela eta, ohar batzuk egin nahi genituzke:

1.- Aitortzen dugu: azkar samar ibiltzen gara gure auto eta motoetan, baina ezin zaigu horregatik txoro deitu.

2.- Gatazka honek irtenbidea izango like Udalak terreno bat utzik baligu gure ibilgailuez gozatzeko. Horrela, ez genuke inor molestatuko.

3.- Udalak hori egiten badu, konpromisoa hartzen dugu gure automobil eta motoak polikiago gidatzeko, horrela herritarrak lasaituz.

4.- Nahiko genuke, bai, Schumacher Oriokoa izatea.

ORIOKO SCHUMACHER TALDEA

Harpidedunei

Arazo dexente izan dugu azken boladan ordenadorearekin, eta, ondorioz, baliteke harpidedun batzuen datuak galdu izana. Ez baduzu ale hau behar bezala jasotzen, adieraz lezaguzu, faborez.

KARKARA taldea

Hauteskundeak eta gero, zer?



INAZITA ABAURREA

51 urte

Orion alderdi abertzaleek gora egin dute; baita espanyolek ere. Bi frentean direla ikusi dut, eta bien arteko borrokak oraindik jarraitzen duela.

EAEn ere antzekoa geratua da. Bi frente gogorizan dira. Abertzaleek apustu gogorra egin zuten Lizarra eta uste dut hori aurrera bultzatu behar dela, hori dela etorkizunerako bidea.



JOKIN URANGA

37 urte

ETAren su-etenaren ostean jendeak asko bultzatu du Euskal Herritarrok. Nik uste dut su-etenaren dela hauteskundeetako fenomenorik garrantzitsuena.

Aurrera begira, etorkizuna ilusioz eta ixaropenez ikusten dut. Nahiko nuke politikoek beren lana ondo egitea, jendeak hauteskundeetan adierazitakoari erantzutea.



ROSA MARI AGIRRE

51 urte

Euskaldunok elkartu egin nahi dugu. Bakea guztion artean egin behar dugu, hitz egindak, ez indarkeria erabiliz. Elkarren respeta behar dugu.

Askok heldurragatik bozkatzen dute, kanpoko alderdiek gora egitearen beldurrez. Aspalditik iruditzen zait abertzale guztioek elkarrekin joan beharko genukeela, nahiz eta iritzi ezberdinak izan.



TXOMIN GOIKOETXEA

52 urte

Orain artean bazirudien abertzaleak bakotza bere aldenik zebiltzala, ondokoak ezertarako aintzathartutagabe. Orain, ordea, ematen du hauteskunde hauetan abertzaleen arteko elkarlana benetan indartu egin dela.

Hori bai, ikusi behar da ea abertzaleen elkarlanak hauteskundeen ostean jarraitzen duen, guztion oneirako.

LORETXU JASOAK
Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

ZUMINTZA
- Koxamundakia
- Errotak
- Sopelak
- Sareak
Tel: 943 83 17 26

GURE TXOKO
TABERNA
ARIZAGA KALE

ALUYOLA, S.L.
Fatima Arregi
LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK
P.V.C., ALUMINIOA,
POLIURETANOA SISTEMA
PERFIL THERMIKOA

KELGER
GURE HERRIKO GARAGARDOA

AUTO-LAN
*Auto konponketak
*Olio eta gurpile aldaketak
Pultzatutakoa, 6 213 88 99 33

PRESUPUESTOAK KONPROMISOK GABE
Jaizkibel plaza, 8 LASARTE
Telefonoa: 943 36 22 77

HAUTESKUNDEEN EMAITZAK

URTEA	HAUTESK.	ZENTSOA	ABS.(%)	EAJ	HB-EH	EA	PSE-EE	PP	IU
1991	Udalekoak	3.312	28	696	598	550	(*) 149		
1993	Orokorrak			566	547	522	292	146	34
1994	Europearrak	3.388	51,62	528	449	308	133	105	
1994	Autonomikoak	3.388	41,27	757	534	357	159	105	48
1996	Orokorrak	3.453	32,70	825	490	410	294	156	67
1998	Autonomikoak	3.533	29,21	929	688	427	207	161	45
			%37,73	%27,94	%17,34	%8,41	%6,54	%1,83	

(*) Euskadiko Ezkerrak 373 boto lortu zituen.

Taularen behekaldeko portzentajeak alderdi politikoei boto guztiak amitzat hartuta lortutako proprtzoak adierazten dituzte.

Bestelako datuak:
Lege Naturalaren
Alderdi: 3 boto, Partido Humanista: 2
Txuri: 35, Buliogabe: 4

Azken hauteskunde
hauetako emaitza udal
hauteskundeetan
gertatuko baitzit,
Orioko Udaleko
zinegotziien banaketa
ez litzateke aldatukut:
EAJ (5), HB-EH (3), EA
(2) eta PSE-EEk (1).

Alderdi ia denak igo dira Orion

Denek lortu dituzte 94an baino boto gehiago, IU/EBk izan ezik

1994ko autonomikoekin
alderatuz, EAJ eta EH-
HBk izan dute gorakada-
rik nabarmenenaz; EAk
beheranzko joerari buelta
eman dio; PP eta PSE-
EEk aber-tzaleek baino
gorakada apalagoak izan
dituzte; eta IUk, berriaz,
biru boto galdu ditu.

LORTUTAKO EMAI-
TZAK AZTERTZEKO, ha-
lorazioa eskatu diegu Udalean
ordezkaritza duten alderdiei.

EAJ: «GUSTORA EGOTEROKO MODUAN»

Herriko EAJk ez zuen horren
emaitza onik lortu, alderdia
zatitu zenetik. EAJ eta EA
herriko zirenetik hauteskunde
guztietan gora egia dugut. Orion
argi eta garbi geratu da zein den
herriarren sentimendua eta ga-
tura egiteko modukoa da.

Era berean, oso garrantzi-
tsutzat jo du EAJk *indar aber-
tzaleek PP eta PSE-EEren fren-
tismoari horotan atxio egitea*.

Orioko EAJrentzat EA eta

EAk osatu beharko luke go-
bernuia udal hauteskundeak
arte; gutxiengoan, baina
EHren laguntza jasoz.

EH-HB: «EMAITZA ITXAROPENTSUA»
Orioko HBk orain arteko
emaitza onenak lortu zituen,
eta aurterra begira emaitza
itxaropenetsuak direla dio.

*Duela urtebetetan inguru ezker-
abertzalea suntsitu nahi zuen
egoera gainditu dugut; baziru-
dut gurvak egia zuela, baina
egozurri buelta eman dugut.*

HBrentzat Lizarrako
akordioa dà jarratu beharre-
ko bidea. Lizarrako akordioa
garatzeko bidea, prestigioa Eus-
ko Jaurlaritzan akordioa pan-
malak adarreko. Herri mailan,
berriaz, gare abaleginak izan be-
har du Lizarrakoak akordioa ke-
rrian isolatzen. Horretarako,
EAJk ikusi behar du elkarriketa
eta elkarlana dirylo bidea, ez
barrokeria.

EA, BEHERANZKO JOERA HAUTSIZ

EAk, erreferentzia moduan

maila bereko hauteskundeak
hartuz gero, beti egin du be-
hera. Urriaren 25ean, berriaz,
dinamika hori pustatzeari lortu
du eta Orioko EAko kideak
pozik daude. EA lehenengo
aldiz aurreko hauteskundeetan
baino emaitza hobea lortu ditu
eta buri prezko modukoa da.

EAko emaitzei dagokien-
ez, EAk uste du EHk kapita-
lizatu duela. Lizarrako
akordioa, eta batzuek gure bat
batzak EHra joatea. Hala ere,
borrek ekarrako baditu normali-
tzazioa eta baka, ontzat jotzen
dugu boto horiek galtzea.

PSE-EE, UDAL HAUTESKUNDEEI BEGIRA

Orioko PSE-EEk boto dezen-
te galdu ditu 1996tik, baina
94ko autonomikoekin alder-
atuz gero 48 boto gehiago lortu
ditu. Herriko emaitzak Orion
disten indarraren ne-
rrikoak izan direla uste dute.
Hala ere, *Udal hauteskundeetan
gora egituz nahi dugut, oriatu-
ren aldeko gure lanaren undu-
rioaz. Gataz gure gure benetako
moldur batzarreria Orion em-
kaldunak eta eginian arrak sen-
ti-zzen direneun interesak defen-
darazka, PPk ez datuka gak-
dankagun implantazioa berrian,*

HARIARI TIRAKA

Lizarrako trena Orion

Jakes Goikoetxea

Lizarrakoak izan da azken egunerako hizketagai nagusia, hauteskunde surretik, hauteskundeetan bertan eta hauteskundeen ondoren. Akordioa bera garrantzitsua da, autodeterminazio eskubidea gauzatzeko funtsezko urratza ematen duelako: abertzaleen butasuna.

Baina akordioaren mamiak gain, garrantzitsua da jarrera, elkarri mokoka aritutako alderdi eta elkarteko abertzaleek bat egitea. Lizarrakoak akordioak, Euskal Herri mailakoak akordioak, isolada behar du herrietan, Lizarrako jarrena gainontzeko herrietan ere behar da. Ea ba Lizarrako trena ez den Orioko geltokiak pasa bakarrik egiten.

BERRI LABURRAK

San Martin festak Ortzaikan

HONAhemen Ortzaikako San Martin jaietako ekitaldi nagusiak. Azaroaren 11n, asteazkena, trikitilariak izango dira iluntzean. Azaroaren 13an, ostirala, 22:30etan mus txapelketa Konpaxanean. Azaroaren 14an, larunbata, goizeko 6:00etan aterako dira oilarisko biltzaleak. Gaueko 22:00etan, berriz, bertolariak jardungo dira. Ondoren, dantzaldia Trakets taldearekin. Hilaren 15ean, igandea, herri kirolak goizean, auzo bazkaria eguerdian eta txokolate jana eta trikitilariak arratsaldean.

Benitoren kontzertuak Euskadiko orkestrarekin

HILAREN 25ean Bilboko Coliseo Albian kantatuko du Benitok Euskadiko Orkestrarekin; eta 26 eta 27an, Donostiarra Victoria Eugenia antzokian.



MARINA DIAZ. Puzik azaldu zen Oteiza: gustura zégoen ztu naharmen utzi zuen.

Jorge Oteizaren bisita

IDAZLE ETA ESKULTOREAK Orio bisitatu zuen urriaren 27an, 90 urte bete berrian, eta, bere osabu Bittor Enbil pilotari ezaguna zenaren bajoreliebe bat eskaini zion herriari, 22-23 urte zituela egindakoa. Jabeekin ados jarri gero, lana Enbil etxeko (BBV bankua dagoena) horman jarriko da.

Horrezaz gain, alkatesak adierazi dugu, denborak eta bizitzak lagunten hadiote, Oteizak eskuulturak bat egingo ditu. Zakiñaneko

aldapao, eliza azpiko arkupetan jartzeko. Lehen erakustei genion eta txoristuta geratu zen.

Eguerdian azaldu zen Oteiza herrira eta izugarrizko ikusmina sortu zuen jende artean. Oso umore onez zebilen, eta hurbildu zitzaitikoz guztiek fotografiak egin eta autografoak firmatzeko patsada ere hartsu zuen. Emozionatuta, poliki-poliki begiratu zituen aspaldi bisitatu gabeko kaleak eta txokoak.

EROSLE //
gure agurpeko denda

AUTOZERBITZUA

ertza
usaindegia
Teléfono: 943 13 35 00

AUTODAK AUKERA ONEAK
AIA ORIO
Teléfono: 943 13 04 38

BORDATXO
• Bokadilloak
• Marisko razio bereziak
--- Tel.: 943 13 30 14 ---

ERRUSTA
Kriston bokadillok!!

Lasailetsuna eta gizonezko
Koasta

ELIZASO
ERLOJUELA
BITXI DENDA
ORIO KAIA 5 TFNOA: 83 10 90
ZARAUTZ, IPAR 6 TFNOA: 13 17 43



LANKA HASI BIRA. Altuna y Uria empresas egingo du kiroldiaren obran lehen fasa, 300 milioi pezeta ingurukoa.

Kiroldegia prest izango da 2000. urtearen hasierarako

■ Oraingo, bi igerileku eta oinarrizko eskaintza izango ditu

URRIAN HASI ZIREN kiroldiaren lanak Ikastola ondoan eta, aurreikusten denez, hurrengó mende hasieran erabiltzeko moduran izango da. Proiektuak 460 milioi pezeta inguru aurrekontua du eta Jose Miguel Makazaga alkatearen ustez, *krediturik gabe finantzatzeko gai izango gara*. Diputazioak 130 milioi pezeta dirulaguntza emango du.

Kiroldiak bi igerileku izango dira, bata 25 metro luze eta hamar zabol (Usurbilgoaren neurrikoa) eta bestea, berriz, hamar metro luze eta sei zabalekoa, hau umeentzat eta ikasten ari direnentzat.

Igerilekuez gain, hasieran kiroldiak oinarrizko azpiegiturak izango ditu (pista nagusi bat eta txikiago beste batzuk). *Hortik aurrera*

—alkatearen esanetan—, *premien arabera sortuko dira azpiegiturak*. Kiroldiaren gestioa nolakoia izango den oraundiak zehaztu gabe dago (publikoa, mistoa ala pribatua), eta Udala inguru herrietako esperientziak aztertzen ari da.

GARAIEAK KIROLDIAREN AZPIAN

Kirol azpiegiturez gain, kiroldiaren azpian garajeak egingo dira. *Gainkostu txiki bat izan arren, kiroldiaren solairu nagusia bi metro eta erdi altzako dugu, garajeak egiteko. Garajeak hartzeko orduna lebentasuna izango dute, hasiera batean, berriko eremu historikoko berritarrek, aparkaleku arazo larriak baitituzte, argitu digu alkateak.*

BERRI LABURRAK

Orio eta Aiako Udalak akordioa

URRIAREN 30eko plenoan Orioko Udalak onartu zuenez, aurrerantzean aiarrei kanpoan dauden oriotarren prezio bereziak aplikaruko zaizkie udan hondartzako pegatina eskuratzeko. Ordainetun, oriotarrek aiarren prezio berak izango ditueta Aiako igerileku.

Santa Zezilia

SALATXO abesbatzak Santa Zezilia eguna ospatuko du azaroaren 22an, urtero bezala. Eguerdian kalekale aterriko dira kantari, eta gonbidapena egiten diete oriotar guztiei berekin parte hartzeo.

Arkue elkartea gelditu gabe

MOTELALDIAK izan haditu ere, berriz ere martxan dabil Arkue elkartea. Presidente berria Cristina Salsamendi da, eta zuzendaritzat batzordean ere aldaketa batzuk izan dira.

Diputazioari eskuatu dioite A-8ko sarrera-irteerako obrak aurreratzea; eta alkateari moilako obrak lehenbailehen bukatzea eta, bittartean, herri barruko semaforoa asteburuetan ere martxan izatea.

Itsas-Ondo

Itsas-Ondo

Kaia kalea, 7 Tfnoa: 943 43 11 79

GOIZ EKO

Aita Lertkundi, 33
Tfnoa: 943 83 28 55

*KAFETEGIA

*IZOZKIAK

*CROISSANDEGIA

Posteleriko
enkarguak
hartzen dira

Kultur teknikaria

AURRERA doaz kultur teknikaria hartzeko deialdiko probak. Guztira egin behar diren bost probetako hiru egin dira dagoeneko.

Bigarren probaren ondoren (hirugarrena eginda dago, bairia oraindik ez dira emaitzak publiko egin), sei lagun geratzen dira lehiaketan, tartean oriotar bakaera.

Argazkiak Salatxon

INDIA, Txina, Nepal eta Marokoko argazkiak ikus daitezke Salatxo tabernan azaroan. Argazkiak Jose Criado Lorenzorenak dira, argazki-erreportajea landu duen argazkilari batenak.

Gainera, aurten ere, diapositiba emanaldiak izango dira; azaroaren 6an Turquia eta Egiptoko irudiak, 13an Marokokoak, eta 20an, berriz, India eta Nepalokoak. Diapositiba emanaldi guztiak 23:00etan izango dira.



KAMPAINA PRESTATZON. Herriko lagun batzuk basi dira dagoeneko Bai Euskarari kanpaina prestatzen.

'Bai euskarari' kanpaina Orion

EUSKARAREN ALDEKO KANPAINA antolatu du Kontseiluak azaro eta abendurako, eta dagoeneko hasita daude herri geienetan kanpaina hori antolatzeko bilerak.

Orion ere egin dira bilera batzuk, eta talde bat ari da prestaketa lan horretan. Taldean herriko hainbat kultur taldeko ordezkariez gain, alderdi politikobatzuk ere ari dira lanean.

Kampaina Euskal Herri osoan antolatuko

da, eta abenduaren 26an bukatuko da, festa handi batekin. Donostiako Anoetan, Bilboko San Mamesen, Gasteizko Mendizorrotzan, Iruñeako Sadarren eta Baionako Saint Leon rugby estadioan ospatuko da festa hori batera.

Kampainaren lema hau izango da: *Bai Euskarari XXI. mendeko akordioa*. Orain dela hogeitze urte antolatu zen *Bai Euskarari* izeneko kanpaina bat, eta hari zor dio izena,

ARRALDE

Sagardotegi-jatetxea

- Jateko eta edateko, denetik
- Eguneroko menuak
- 300 lagunentzako lekuak
- Aparkaleku zabala
- Bataio, eztei eta komunioetarako leku aproposa

Errotaetxea baserrian *Llodio-Etorbidea 1 km.
Tfnoa: 913 89.01.25. Aia (Ordo)*

ESKATU AURREKONTUA KONTRAHISORIK GABE

RAMIRO

TELEFAXA: 943 83 10 48



SALSEROK DANTZAK. Karibeko erritmo bizi eta ikasgarriak ikasteko aukera dago kultur etxean.

Orio, herri salseroa

IZUGARRIZKO ARRAKASTA IZAN du Orla taldeak aurten aurreneko aldi arrolatu duen salsa ikastaroak. Berrogeita bat lagun daude izena emanda azaroaren hasieran martxan jarriko den ikastarorako.

Klaseak kultur etxeen emango dira, astean bitan, iluntzeko orduetan, eta irakaslea Oriora ezkonduztako kubatar bat izango da: Dayami Sels.

Dayami, gainera, haurrei ere ari zaie

erakusten, argazkian ikus daitekeen bezala. Haurrak koreografia bat ari dira ikasten, gero San Nikolas jaietan jendeurrean agertzeko.

Horrenbesteko jende pila bildu ez duena Euskaltegia izan da. Aurten bi talde sortu dira: bat euskalduntze mailakoa, eta bestea EGAKOA. Alfabetatzeko klaseen eskaintza ere egin zen, baina ez zen talderik sortu, jende gutxiak izena eman zuelako.

MAKAZAGA Igeltseritza

- Igeltseritza orokorra, denetarik egiten duen
- Prestumatorik oskaratu, libapromezak, zabe...

Lan haukuna egi
merkean

Tfnoa: 943 83 59 00

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29

Tfnoa: 943 83 00 05
943 13 25 82

Nestor Gozategi



Tel.: 907-224100

Tel.: 907-224100

HANDIK ETA HEMENDIK

JOSE LUIS KORTA

Castrako entrenatzailea

"Nik bota beti agintean dauden kontra ematen dut."

EL MUNDO. 98/10/18

JOXEJULIAN OLASAGASTI

Orinako Arraun Elkarteko presidente

"Txiki oso umoretsua zen, saltza guztietako perrexila, denoi jotzen zigun adarra."

EGUNKARIA. 98/10/25

LUIS JABIER SALABERRIA

San Pedro Arraun Elkarteko presidente

"Aprezio handia genion Txikiri, mutil txiki-handi horri. Gauza bat da elkarren artean lehia izatea, baina bera oso mutil jator eta sanoa zen."

EGUNKARIA. 98/10/25

Ibon URBIETA



‘Abertzaleon arteko elkartasuna indartu da’

Arraunlari eta Gozategiturren managerra Euskal Herritarrok taldearen (EH) zerrendetan aurkeztu zen urriaren 25eko hauteskundeetan. Bigarren aldia zuten.

Zer moduzko esperientzia izan da?

Aukera eman dit ezker abertzaleko politikariak ezaugzeko, eta esperientzia izugarria izan da, ikusi baitur jende naturala eta jatorra dela.

Zein balorazio egindo zenuke hauteskunde haueko emaitzei buruz?

EHI dagokionez, gorakada izugarria izan du. Alderdi abertzaleen eserlekuak mantendu egin dira, baina PPk gora egitea emaitza txarra da,

gogoeta egiteko moduko. Abertzaleontzat esan nahi du batu egin behar dugula beste erremediorik gabe.

Horretaz gain, orain gutxi arte, bazirudien abertzaleok bakotza gure alderik genhiltsa, eta besteentzako porrotez poztu egiten ginan. Gaur egun, ordea, abertzaleon arteko elkartasuna indartu da. Abertzaleontzat alderdi abertzale batek eserleku gutxiago izatea indarra galtzea da. Azkenaldian, aldaketa hori izugarria izan da.

Lizarrako akordioa al da jarraitu beharreko bidea?

Ez dut inolako zalantzarak. Lizarrako akordioak esaten du errespetatu egin behar dela euskal herritarren nahia eta hori benetako demokrazia batean ezinbestekoa da.

Orain arte defendatu nahi izan duten demokrazia nahiko

ustela da. Benetako proposamen demokratiko bat mahai gainean jarri denean, zenbait alderdi espainolistak erakutsi dute ez daudela prest Euskal Herria benetako demokrazia batean sartzeko.

Zein iritzi duzu Jauriaritzako osatzeko saioei buruz?

Onena izango litzateke abertzaleean artean konpondu eta gauzak aurrera ateratzeko bidea irekitzea. Zaila da, orain artean elkarri mokoka aritu baikara. Horri buelta eman beharra dago. Lehen pausoak eman dira eta aukeraren bat ikusten dut. Momentu hau abiapuntua da benetako Euskal Herri bat egiteko.

Lizarrako akordioa, sueten... Giroa aldatu dela eta ilusioa sortu dela sentitzen duzu?

Bai, abertzaleon artean inork ez du zalantzak. Gauzak pila bat aldatu dira. Ilusioa nabaria da kalean.

Epe erdira edo epe luzera posible ikusten al duzu autodeterminazio eskubidea gauzatzea?

Garbi daukat autodeterminazio eskubidea gauzatzeari litzaten ez bada, ez dela exer konponduko. Nahiz eta ETAK armak utzi –ETAK berak esan zuen BBCk egindako erreportajearen– euskal gizartearekiko errespetu minimorik ez badago, mugimendu horiek lehenago edo beranduago berriz sortuko dira.

Prozesua luzatzea izango litzateke ETAK armak uztea gauzak konpondu gabe. Garai historikoa bizitzen ari gara eta aurrerapauso handiak eman behar dira, gauzak benetan konpontzen saiatu,



INDIA MANTEROL

ARRAUNA

Rafa Glez. de Txabarrik Zierbena utzi du

ORAIN artean Zierbena ko entrenatzaile eta Orioko prestatzaile fisikoa izan den Rafa Gonzalez de Txabarrik Zierbenako arraun elkartea utzi du. Lan handia egin eta gero, nekatuta zegoen eta bere bizitzako etapa hori itxi nahi izan du. Aurrerantzean Tito Manzillaren laguntzailea izango da Orioko Arraun Elkartean.

ARRAUNA

Dionisio Redondo, Getariako entrenatzaile

DIONISIO Redondo da Getariako arraun elkarteko entrenatzaile berria. Dionisio munduko txapeldun izan zen zortzikoan eta arrauneko modalitate guztiek landu ditu. Entrenatzaile lanetan Orioko jubenilekin aritu da.

ARRAUNA

Samin handia sortu du Txiki Larrañagaren heriotzak

TXIKI LARRAÑAGA, herriko traineruko patroia, auto istripuan hil zen urriaren 24an, goizaldean etxera zohoala. Zarauzko Urteta auzoan, bere etxetik elun metro eskasetara Txikiren autoa errepidek ateratzen maldan behera erori zen. Autoak su hartu zuen eta Txiki kiskalita hil zen.

Goizeko lehen orduan herrian zabalduta zehar traineruaren garaipenen seinale diren bandera horiak ateratzen balkojetara, baina krespoi beltzarekin. Zarautzen izandako hileta elizkizuna oso jendetsua izan zen, jendeak Txikiri zion estimazioaren adierazgarri. Orion izan zen elizkizun berezian ere herritar ugarik hartu zuen parte.

Txikiren heriotzak samin handia sortu zuen arraun munduan, eta garbi geratu zen hori ezbarraren osteko erreakzioetan.

IBON URBIETA: «ASKO GALDU DUGU»

Orioko Arraun Elkartearantzat oso kolpe gororra izan da. Ibon Urbietak arraunlariak adierazi digunez, *izagorritzko mina jasan dugu, asko galdu dugu, giza mailan eta kirul mailan. Uste dut Txikiren heriotzat dela nire bizitzako momenturik gogorrena kirulari moduan. Atzo bertan klubera joan nintzenean izagorritzko impresioa egin zidan. Segituan joan nintzen beraz ildatzen zen tokia begiratzera. Denboraldi basiera gogorra izango da eta zenbait momentutan Txiki ezingo dugu burnik kenda.*

JUDO

Peña eta Ostolaza Euskadiko txapeldun

IBAI Peña eta Iker Ostolazak Euskadiko Judo Txapelketa irabazi zuten: Ibaik, 60 kilotik azpiko mailan, eta Ikerrek, 90 kilotik azpiko mailan. Txapelketa Bilbon jokatu zen azaroaren 1ean.

Inaxio Andres
Pintura
orokorrean eta
enpapelatze
lanak egitean
dugu

DRIZU, SL
urbide 12.4.C
943 83 20 69
909 40 58 98

URBAZTER
ASEGURUA
AHOLKULARITZA

San Adrián 25
tel. - Fax: 943 17 13 12

Ekomil
arraindegia

Telfnoa: 943 83 27 47

Ibai-ondo
Sistematizazioa
Ibai-ondo
Sistematizazioa

Telfnoa: 943 83 47 50

ARRAUNA

Beka deialdia egin du Urola-Kosta Mankomunitateak

UROLA-KOSTA Mankomunitateak beka baten deialdia egin du, arraunari buruzko materiala euskaraz sortzeko.

Asmoa fitxa batzuk sortzea da, gero entrenamenduetan erabil ahal izateko, izan ere, arraunaren mundua nahiko euskalduna bada ere, oraindik ez dago apena material idatzirik entrenamenduak-eta euskaraz egiteko.

Bekaren oinarriak Udaleko Euskara Zerbitzuak eska daitezke. Interesa dutenek azaroaren bukaera arte dute epea, eskabideak surkezteko.

MARATOIA

Kamel Ziani erretiratu egin zen Amsterdamen

KAMEL Ziani korrikalari oriotarrak 10. kilometroan utzi zion lasterketari, Amsterdamko maratoian. Arazo fisikoek galarazi zioten jarria zeukan helburua lortzea.



EMAITZA ONA. Eli Lasa taldeko bi lagunekin eta selekzionatzailarekin. (El Mundotik hartutako argazkia).

PILOTA

Eli Lasa txapeldun geratu da Mexikoko Pilotar Mundialean

ELI LASA AIARRAK urrezko domina lortu du Mexikoko Munduko Pilot Txapelketan, trinketeko *argentinar paleta* espezialitatean, binaka jokatuta. Hala ere, garaipena ez da nahi bezain gozoa izan Elhentzat, Mundialeko partidu bakarra jokatu baitu. Espainiako selekzioko entrenatzaileak lau pilotari eraman zituen Mexikora, haienkin espezialitate horretako bikotea osatzeko. Aurreneko partiduan Eli Lasa izan zen jokatzeko aukeratuak bat, baina

partidu hartan bertan txonkatila bihurritu eta ezin izan zuen bukatu. Masajeen bitartez txonkatila sendatu bazitzaion ere, entrenatzailak ez zion aukerarik eman Mundialetan berriro jokatzeko. Jokatu zutenak finalerako sailkatu ziren eta bertan Frantziarrak mendean hartzituzten, urrezko domina eskuratuaz. Beraz, Eli Lasa munduko txapeldun da, nahi adina jokatu ez badu ere. Orain New Yorken da oporetan, dominaz gozatzen.

Hospital de Zarautz
EUROFUNDACIONALDEA
Hileto eta zerbitzu orokorak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetan
- * Aldioroko zerbitzu
- * Seletorio gelak
- * Koroziak, eskalak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarautz
Tel/Fax: 943 13 22 52

GABON
Plater kombinatuak,
pintxoak eta txokolatadas

Tel: 943 83 06 09

AZKUE
Itsas-gaiak

Eusko Jaurlaritzan
943 83 25 58

HERRI IKASTOLA

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

Iturain
estancoa

ariztarraga Plaza # 13 44 73

Lizaso
Museo

Estudio Lizaso, 36 Diques 943 83 27 94
www.lizaso.com Spain 943 13 22 52

Salatxok bost urte



MARINA LERTXUNDI
Salatxo abesbatzaren
zuzendaria

'Herri txikitán denok elkar ezagutzen dugu. Baino, koruari esker, orain ezagutza hori sakonagoa da, harremanak sendotu egindira eta lagunarteko giro aparta sortu.'

alatxo abesbatzaren sureneko bost urte hauetako lana oso positiboa izan da. Esperientzia berri hiztan sartzean, hizketa bere ilusio osoa jartzen du horretan, eta ahal duen goienezta iristeko ahaleginak egiten ditu. Alde horretatik Salatxon asko egin dugula iruditzen zait.

Bost urte hauetan Salatxoren izena herritik kanpo eraman dugu hainbat lekutara, eta, berarekin batera, Orioko herriaren izen ona.

Korua, hasieran, 50 partaidek osatzen zuten; gaur egun 63 gara; hau da, abesbatzako kideen kopurua handitu egin da. Horrekin denok ikus dezakegu Salatxo eta berarekin abesbatzen mundua bizirik dagoela gure herrian. Nahiz eta bajak izan urte hauetan, beti dago jendea bertan parte hartu nahi duena.

URTE GUZTI HAUETAN, astean behin solfeoko klaseak eman ditut, denek ez baitzekiten; baina oraindik klase horiek ematen jarraitzen dut, sartzen diren koralista berriak besteen mailatua iritsi ahal izateko. Horrekin hasieratik lortu nahi izan dudana gauza bakarra da: koralistek partitura bat irakurtzen jakitea eta beren maila musikalak ahalik eta handiena izatea.

Iaz, abesbatzako partaideci gizon falta sumatzen nuela komentatu nien, baina kezka hori gaindituta dantagu dagoeneko, adin guztiak tenore eta bajuak sartu haitira taldean. Emakumeak ere ez dira atzean gelditu.

Entsaio orokorretan, Salatxoren aurcean nagoenean, gauza batetaz ohartzen naiz: zenbat jende eta zein adin desberdinak dabiltsan gure artean; gazteak, oraindik hazteko edadean daudenak eta hain gazte ez direnak ere hai (mori axola zaio adina?) eta denek bat egiten dutela koruak aurrera egin dezan. Horrekin adierazi nahi dudana zeri da: abesbatzan herriko ordezkapen bat dugula. Arrazoi hau eskuian hartuta herriko hainbat ekitalditan parte hartu dugu eta parte hartzen jarraituko dugu. Adibidez, *Emkaraz Gaste* kampainaren barruan, Don Andresi eskerrak emanez San Pedro eta

San Nikolas egunetan Meza Nagusian abesten eta baita, lehengo ohitura zaharretariko bat berreskuratu nahian, Santa Cecilia egunean kalez kale abesten.

BETI ESAN IZAN DUT herri txikitán denok elkar ezagutzen dugula. Baino orain ezagun horien harremana sendotu egin da eta lagunarte bat ere sortu da. Guztia hau Extremadura eta Portugalera egindako azken bidaian ziurtatu ahal izan dit. Bertan hainbat kontzerto eskaini ditugu eta, horretaz aparte, elkar bitzitzaz oso ona izan da.

Betiko ekitaldietaz aparte, aurten Salatxo Abesbatzaren 5. urteurrena dela eta, zerbaiz berezia egin nahi izan dugu eta aitzaki hori izanik, abesbatzen arteko lehen topaketa antolatu dugu. Aurtengo aurrenekoa izan da; baina, herritarren harrera ona ikusirik, datozen urteetan ere antolatzeko asmoa dugu. - Dagoeneko bost urte igaro dira 1993ko azaroaren 22an hasi ginenetik; zenbat gauza egin ditugun eta abesbatzak mantentzen dituen gogo eta ilusioarekin zenbat egitera iritsi gaitezkeen! Seguru nago zuek ere hor egongo zaretela gure lana jarraituz.

Infalki Gasteiz
Asegurua-agentea

C C I
CARASA, CILVETI, LACORT Y CIA, S.A.
Aseguruak

Eusko Gudari, 17 (atzek.)-3. Tfnoa: 943 13 46 07

ODITZ
HORMIGUZAKALEKO OINETAKOAK
GIZON ETA EMAKUMEENTZAT
T 943 83 00 39

Pelikaria eta estetika misioa
ZSS
- Tinturakuntza eta tinturak materialak
- Beheragaitzako tinteak irautegiak
- Arazak eta desbezak
- Peatinak
- Dantzaak
Zen Rikolatza, 5 Tel: 943 85 51 70



ORIOKO PALENTZIAKA. Mariabel Brit-en boto hartzeko ospakizunera Oriotik joandako mojigak eta lagasatik.

Hiru bidaia

Palentzia, Portugal eta Italiara

San Nikolas jaia atarian ditugu, hotza ere iritsi zaigu herrira eta batzuk, dagoeneko, igarotako udako beroaren eta oporraldiaren oroiminak jota daudenez, horren samindura arintzeko udako hiru bidaiaaren berri emango dugu: herriko hiru talderenak. Aurrenekoak, eskulanak egiten dituzten emakumeen taldeak uztailean Palentziara egindakoa; bigarrena, Salatxo abesbatzakoek abuztuan Extremadura eta Portugalera egin zutena, eta hirugarrena, Harribil dantza taldeko gazteek Italiako Orio Canavesera egindakoa.

Iñaki Iturain

Herriko hainbat emakume mojen etxera joaten da eskulanetara, goizez haurtzaindegia den mojetxes arratsaldez kultur etxe eginez. Moja hauek kombidatuta, nztailaren 11n, taldeko 10 emakume Palentziako mojen konbentura joan ziren ospakizun erlijioso ba-

tera: Orioko Mariabel Brit neska gazteak monja egiteko *boto perpetuak* edo bizitza osorako botuak hartu behar zitueneko ekitaldi erlijiosora.

Mariabelen familiak autobuskada bat lagun eraman zuen Palentziako ospakizunera; autobusean denentzako

lekurik ez zegoenez, emakumeek mikrobus batean joan ziren. Lo Baltanaser egin zuen, Puertastarraren jaioterrian: Migel Puertasek eta bere familia horretarako utzi zizkietaan bi etxeetan. Baltanas ez baitago urrutti Palentziako hiriburu. Egun hartako haz-

karia konbentua bertan egin zuten.

Boto erlijiosoak hartzeko ospakizuna oso hunkigarria izan omen zen; Orioko neskarrekin batera Congoko beste bat ere bazen, eta errito erlijiosoaren ondoren Afrikako hainbat kantu eta dantza izan



USKOKO EXPD. SAN. Salatzkak oso aperto zuten biltzarraren artean. Extremadura eta Portugal aldean. Iñaki ditu gizartea sietean arintzen.

ziren. Lehendik ere badira Orioko neskak *Anxilarien Parroquia de Cristo Sacerdote* izeneko orden erlijioso horretan: Covadonga Santos, Lurdes Sanz, María Luisa Larreta eta Soraya Moreno neska gazteak; eta Irungo kôntzentuan, 92 arteko Carmen Iturain.

Orioko emakumeek ez zuten denbora askorik izan gauzak ikusteko; gaur joan eta bihar etorri egin baitzuten, uztailaren 11 eta 12an; baina Baltasar herria eta Palentziako hiriburuko katedrala, konbentua eta hainbat kale ezagutzeko aukera izan zuten behintzat.

KANTARIAK PORTUGALERA

Salatsu abesbatzako kantariak, korua sortu zenetik 5 urte bete direlako aitzakiarekin bildai ederra egin zuten abuztuan Extremadura eta Portugalera; kantarietako batera haien familiarteko batzuekere baliatu zuten bildatzeko aukera.

Uztailaren 30ean abiatu ziren Orioetik; ganez, bildaiaren

nekez arintzeko. Goizaldeko Cacereseko Trujillo ziren, han geldialdi labur bat egin ostean Mérida alderia jo zuten. Bertan erronkatarren aztarnak bisitatu zituzten, antiteatroa eta zirkoa. Han izan zuten ustekabeko lehen ezberdina, koruko emakume bat erori, txörkatila bihurritu eta ospitalera eraman behar izan

zuten. Egun hartan, iluntzean, kontzertua eman zuten Meridako katedralean. Ondoren afari ederra izan zuten herriko jendearekin. Abuztuaren 1ean Cacereseko alde zahar ikusgarria ezagutu, hango gastronomiaz gozatu eta Portugal alderia jo zuten.

Lourinha izeneko herri txiki bateko aterpean hartu zu-

ten ostatu, Atlantiko itsasertzeako hondartzta batzen ondoondoan. Atlantikoko olatuen joan-eroriaren musika harmoniatsuia izan zuten lagun gaueko. Ostatua ondo egonagatik ere denak ez omen zeuden zeharo konforme: emakumeak gela batean eta gizonezkoak beste batean egon behar izan zistelako, sestaz-estazteak ere



MUA GAZTE BISITARRAK

Maribel Brito eta berarekin batera urtean erlijioa beren danudes Orioko besta bira nekak gazte: Covadonga Santos, Lurdes Sanz eta M. Luisa Larreta.

separatuta, batek kontatu digunex.

Beti ere Lourinhatik abiatuta Portugaleko hainbat leku ezagutu zituzten: Foz d'Arelo herria, bertan kontzertu bat eman ere bai, Sintra, Lisboa, eta han kokatuta egon den den Expo 98. Kontzerturik onena han eman zuten, Expon, baina bat-batekoan, improbisatua: pabello batzuen sartzeko zezen jende iladan zain zeudela kantatzen hasi eta sekula izan duten txalo zaparradarik handiena jaso omen zuten.

Espón gauza eder eta ikusgarriak omen zuden; Lisboa ere asko gustatu zitzaien, nahiz eta koruko batek istilutxo bat ere izan zinen tranbia zinhoala: lapur batek poltsa kendu, ospa egin eta oriotarrak tranbiatik saltu egin beharizan zuen martxan, lapurraren atzetik joateko, honek poltsa harrika bota zuen arte.

Gorabeherak gorabehera, astebeteko bidai gozagarririk egin zuten: lekuak ikusi, gauzak ikusi, eguzkia hartu, gauzak hotz piskat pasa ere bai, hango jendeari gure kantutegia

erakutsi, eta Orion kantatzetan segitzeko indarra hartu zuten,

DANTZARIK ITALIARA

Harribil dantza taldeko neska mutil gazteek ere taldea sortu zenetik bidai lozeena egin dute aurtengoudan. Iraialaren 10ean abiatuta 9 eguneko bidaia egin zuten Oriorekin senideetuta dagoen 900en bat biztanle dituen Orio-Canavese izeneko herri txikira, hango herritarrek konbidatuta. Joan-etorría oriotarren kontura izan zen, gainontzeko gastuak hangotarrenera.

Hogeita bost bat lagun joan ziren, Orioko dantzarietan batera Getariako 8 txistulari ere bai. Harantzakoan Monacon gelditu ziren 16 orduko bidaian atsedentxo bat har-

taeko. Canavesera iritsita apaitztxe batean harri zuten osta-ri. Herriko jaiek ziren eta herriko plazan egin zuten dantza erakustaldi bat, ondoren herri afaria izan zuten eta gaua gazterrean pasa, taberna bakanra eta gaztetxea duen herris-ka hartan.

Ondorengo egunetan Alpeetara joan ziren, Cervino aldera. Teleferikoan 3.700 metroramo igo ziren. Han-dik, hotzak akabatzen. Alpeetako ikuspeki zoragarria gozatu zuten, Mont Blanc Europano mendiburu aurrezurre zutela.

Beste bi egunetan Canavestik 30 bat kilometrora dagoen Torinora jo zuten. Han museo egipziarra, arte garai-kideko museoa, eta beste gau-

za asko ikusi omen zituzten. Eta zer ez? Oso programa betea eta estua izan omen zuen hango lagunek antolatuta. Batetik bestera ibili ziren, gauzak ikusi eta ikasten. Torino hiri eder eta interesgarria omen da; 17 kilometroko ibilbidea omen du arkupetan, habesean eguzki eta euritatik; Italian bertan dagoen Boloniaren atzetik munduko bigarrena omen da horretan.

Han, Torinon, harrera ofiziala ere izan zuten, hango politiko baten eskutik eta ondoren, jakina, baxkari ederri.

Italian zeuden, baina momentu batzuetan gogoa Orion, izan ere egun haietan Kontxako bandera baitzegoen jokoan eta egunero deitzen zuten etxera estropadaren berri jakiteko. Dei haietako baten bidez jakin zuten, baita ere, ETArren su-etenaren berri.

Han izan dute Harribilekoek orain arteko bidairik onena; batez ere italiarren jarrera onagatik. Haietako batzuk San Nikolasetan Oriora etortze-koak dira.

'Kontzerturik onena EXPOko pabello bat-batean sartzeko zain zeudela eman zuten Salatxokoek: bat-batean kantatzen hasi eta jendeak sekulako txalo zaparrada eskaini zien'

ALPEETAN. Harribileko dantzariak irailean eta hotzak akabatzen, Cervino arzean dantza, bereen lagun italiarrerikoa.



JESUS MARI PERONA

‘Untzi bakoitza erronka bat da’

Duela hamabi urte inguru Donostia Antiguako etxean bizi da. Herrimina duela aitortzen du, arrantza-leek berrian sortzen duten giroagatik batez ere. ETBko arotza da lanbidez, eta modelista, afizioz. Garai bateko itsasuntziak eskalan egiten ditu, orduko liburu eta oinarrituta eta untzigileen plano zabarrak erabiliz. Ikerketa sakonean oinarritzen du lana. Arraunlari izana (1971-1975), bere lanak arraun-pala batean izena jarriz sinatzen ditu.

JAKET GOIKOETXEA

Noiz eta nola hasi zinen zurgintzan?

Orain eskolak luze joaten dira, baina garai hartan behin 14 urtez geroztik oso gutxi ateratzen ziren kanpora ikasketak egitera, gehienok lanean hasten ginen. Gurasoek galduen zidaten ea non hasi nahi nuen lanean eta erantzun nien ez zitzaidala importa batean edo bestean jardutea. Amak lana esku zuen Arin y Enbil ebanisterian eta tosta tarteak bi itsasuntzitan. Arin y Enbiletilk eskaintza lehenago etorri zenez, han hasi nintzen lanean.

Hantxe pixkana-pixkana ofizioa ikasi nuen. Ofizial onak izan nitten inguruan: Mariano Oliden Danhain, nire osaba Remigio, Laudi Gonzalez de Txabarri... Norberaren jaunera ere oso garrantzitsua da. Gogoa jarriz gero, etekina ateratzen diezu inguruko balia-deci.

Horrezaz aparte, betidanik gustatu zait egurra. Aita txaroleroa zen, gaur egun harni-


zadorea esaten zaiona, eta egunarekin eta altzarietkin lan egiten zuen beti.

Eta modelismoan?

Jende asko jarduten da modelismoan. Batzuk jubilatu eta gero hasten dira; niri, berriz, pasio hori oso gaztetan sortu zitzaidan.

Mutut koskorretan modak izaten ziren: xibak, kanikak... Orduan ez zen telebistarik. Irratia bai, baina inor ez zen etxeen geratzen irratiagatik. Dibertsioa norberak egiten zuen. Tartean moda izaten zen egurra ezpalekin itsasuntziaren formak egiteko, baita fruta kaxekin ere. Haiei masta batzuk sartu, paperezko oihalak jarri eta errioan goitik behera korrontean bidaltzen genituen. Kutxilarekin ahaldadea zuenak egurrari forma ematen zion eta bote txikiak egiten zituen. Horrela hasi nintzen.

Arin y Enbiletan hasi nintzen garaian bertako egurtxamarrekin Santa Maria karabela egiten saiatu nintzen, irudi batean oinarrituta. Bukan gabe geratu zen. Gero ikusi



AFIZIOA BAINO ZERBAIT GORIAGO. Jesus Mariak etxeko garajean paratzen da ETBko arantz laneak uzten dioten denbora gehicena, urtez urte maketak egitean.

nuen planoak behar izaten zirela maketak egiteko,

Gaur egun, ikerketa historikoan oinarritzen zara maketak egiteko, ezta?

Gaur egungo tuldelana da, Aquariumgo modelista taldearena. Elkartearen helburua da ahal bada bertako itsasuntziak egiten saiatzea, jadanik ez daudenak berreskuratzea, dokumentatzeari eta historiagileekin harremanetan jarriz.

Karpoiko untzi baten makeata egitea ohore handia da, baina bertako egitea ohore handiagoa. Halaxe, ilusio horri heldu eta hasi nintzen modelismoan.

Baina maketak egiteko garai

hartako untzigileen planoak eta agiriak erabiltzen al dituzue?

Bai. Esate baterako, Nao Balleneru egun genuenean XVI. mendeko konstrukzio tratatuak erabili genituen.

Baita XVI. mendeko egurra ere?

Bai. Banekien elizan konponketa batzuk egin zituztenean sapaien utzi zituztela balio ez zuten XVI. mendeko egur batzuk. XVI. mendeko untzi bat egin behar nuen, orduko egurra erabiltzea pentsatu nuen. Apaizari komentatu nion eta esan zidan egur horiek traba besterik ez zutela egiten elizan. Ordutik,

anaarekin-eta goraino igo, han egurra zerratu eta behera jaiti genuen.

Nao Ballenerak oihartzun handia izan zuen.

Taldeleana izan zen. Gure sasieskoletatik ateratako informeekin eta historiagileen la-guntzarekin egin genuen. Orioko alde Zaharreko ategun hategi armarraria ere oso garantitua izan zen.

Eta orain zein maketa egiten ari zara?

Espaniako armadako galeoi bat, *Nuestra Señora de la Concepción y las Animas*, Antonio Gaztañetak egina. Berak idatzi zuen antzi honen eraikuntzaren egunerokoa eta eguneroko hura erabili dugu itsasuntzi hau egiteko. Hutsune asko daude, baina informazio asko ere eskaintzen ditu. Horretaz gain, garai hartako errege-ordenamenduetako erre-glamentuak eta eraikuntza tratatuak ere erabili ditugu. Ikerketa oso sakona izan du. Guztira 16.000 pieza inguru ditu, Nao Balleneraren tankeran.

Ia bukatua dagoela dirudi.

Oraindik erabat bukatu behar dit, baita orain artean ez dit aukerarik izan bukatzeko, bateko eta besteko erakusketetara eramanen baitute. Duela hamar urte hasi nintzen egiten. Jakina, hamar urtetan ez dut hemen (garajean) eduki. Jadanik aspertuta nago, bukatuta ikusi nahi dut.

Projektua egin genuenean bi urteko programa egin genuen eta ikerketa arin egin izanez gero, urte pare batean bukatuko nuen. Baina ikerketa astuna izaten da, hari hategi bestera garamatza eta oraindik bukatzeko dago. Kolaborazioa afizioz egin dut, dohai-nik, ilusioa eta grina dirudalako eta horrelako proiektuan parte hartu nahi dusalako.

Ikerketa lana luzea izan da, ezta?

Bai, osoluzea. Ez da mode-



listentzat prestatzen den plano bat hartu eta itsasuntzia egitea. Trabaren bat aurkitzen duzunean ez daskazu zuk nahi bezala aurrerri egiterik. Ikerketa taldekoekin kontsultatu behar duzu, dauden oztipoak ezagutu behar dituzte. Ikerketa lana arkeologaren tankerakos da. Gauzak ezin dira edozein moduz egin.

Zein da zuen motibazioa?

Satisfazio pertsonala. Lanaz gain, beste zerbaitek behar da bizitzan. Kezka ateratzen zait barru-barrutik eta garajera etortzen nai. Modelismoan jardutera tarteak dudan guztietan. Orduak joaten zaizkit konturatzera.

Gure helburua da barru-barrutik sentitzen dugun arte horrigauzatzea. Hasieta-hasieratik oso zaila ikusten duzun lan bat bukatzen duzun garaien izugarritzko satisfazioa sentitzen duzu. Itsasuntzi bukatzera erronka bat da eta



XVI. MENDERO ECUBA: Gólan, Jesus Mari Perxasen azken lana, galeoi bat. Bulean, bere anaia-eta elizako sapirrik XVI. mendeko egurra jaiti ondoren. Jesus Mariak ugur hori erabili zuen Nao Ballenera egiteko.

hasieran ez dakigu bukatzeko dugun edo ez, zaitasun handiak izaten baititugu.

Jendeak estimatzen al du zuen lana?

Gauza guztietan bezala, batzuek bai eta beste batzuek

ez. Orain gutxi Donostian egin den erakusketa jende asko izan da.

Eta zuen lanek non bukatzentz dute? Erakusketez gain, etxean jasotzen dituzue?

Nik, zorionez, etxeen ale batzuk baditut. Amak, anaiek eta osabek badituzte eta hartzuk oparitu egiten dirut. Aquariumean ere badaude. San Martin bergantina, berez *Nuestra Carmencita* izena duen, Orioko San Martin ermitan dago.

‘Untzigileak idatzitako lanen egunerokoa jarraitu dugu armadako galeoi bat egiteko. Ikerketa oso sakona izan da’

AIAKO berri



PARTEHARTZERAK. Aiako berritarrek gogoz parte hartu zuten urriaren 25eko zitau.

Alderdi guztiekin gora

■ EAJ eta EHk eskuratu dituzte Aiako boto berri gebienak

URRIAREN 25 EKO GASTEIZKO Legebiltzarreko hauteskundetan, 1994ko hauteskunde autonomika enaitzekin alderatuz gero, alderdi politiko guztiekin egin dute botoetan gora Aian.

Alderdi bozkatuena oraingoan ere EAJ izan zen 455 botorekin (boto guztien erdia, 1994ko hauteskundetan haino 82 boto gehiago). EHk 290 bota lortu zituen (+91), EAk 162 (+7), PPk 17 (+8), IUk 6 (+2) eta PSE-EEk 5 (+2).

1.371 lagunek zuten bota emateko eskuidea eta, partehartzeari dagokionez, absenzia %31,44koa izan zen (+31 aiarrek ez zuten bota eman), 1994an haino hamairu puntu txikiagoa. Boto txuri bakarra izan zen eta baliogabeak, berriz, lau.

Jende gehiagok bozkatu zuen, beraiz, hauteskunde hauetan eta bozka berri horiek batetik ere EHrentzat (+91) eta EAJrentzat (+82) izan ziren. Bi alderdi horiek gorakada nabarmena izan dute.

Hankasartzeak aitortuz, barkamen eske

HONEZKERO Belen Ibarrolak ez du oso gustora egon behar KARKARAko lankideokin, behin haino gehiagotan sartu baitugu hanka emakume hau aipatu izan dugunean. Hasteko, berarekin beharrean bere senarra beste batetik ezkondu genuen, Belenen izenaren ordez beste batena jarrita. Azken KARKARAn, berriz, ez genituen behar bezala jarri bere alabaren ahizenak. Ea hemendik surreta zuzenago ibiltzen garen...

Pello Pagadizabal txapeldun Tarragonan

IRAILFAN Tarragonan izandako artzain txakurren txapelketan Pello Pagadizabal izan genuen irabazle, Border Collie arrazako Alai bere txakurrarekin. Pagadizabalen hitzetan, *Alak* lan bikaina egin zuen, bera izan baitzen azken froga egiteko gai izan zen bakarra. Hala ere, minduta ere hitz egin zigun, Hegu Euskal Herrian ez baitiote uzten parte hartzen arraza horretako txakurrekin.

KANUA
RESTAURANTE

Bertako bozarruri eta haragak.
Etxeko sukaldetegi eta aseghua
Haurrenlaiko menu berezia eta
jolasekua

Gozategi Eparantza, 11 - AIA
TEL. 943 83 43 22

SEGA
ezkontzak, bataioak,
jaunartzeak

Tlfnoa: 943 83 07 16
Erreka auzoa

ARISTERRAZU
Jatetxea

San Pedro Tlfnoa: 943 83 45 21



TRISTETU EGUN DIRA AIKO KANPAIAK. Urriaren 4an hil zen herriko kanpajolea.

Pepita Zabala hil da

Pepita Zabala, 60 urtez Aiako elizan kanpaiak jotzen jardun zai-gun emakumea, iragan urriaren 4an hil zen, 76 urte zituela. Pepita 16 urterekin hasi zen herriko kanpaiak jotzen eta, ordudanik, 60 urtez etenik gabe aritu da era bateko zein besteko kanpai hotsak zabaltzen herrian.

Pepitak egunero bost aldiz jo-tzen zituen kanpaiak: hiru aldi-

tan erlijioarekin zerikusia zuten doinuak eta bitan, berriz, kanpai herrikoia.

Herrikoak eta egunerokoak ez ziren kanpai doinuak jotzen ere arduratzan zen, besteak bes-te, trumoia izaten zenean kon-juro gisako kanpaiak jotzen zi-tuen. Gainontzean, ezagunak dira hil kanpaiak eta su kanpaiak. Goian bego.

Egun aldrebesa

Riin! Kaka zabarra! Eskubiko eskuaren aburra hizatu eta iratzargailuaren zarata jasanezinaren bukaztea hesterik ez dut buruan. Ohearen berotasuna gozatuz, buelta erdia eman, eta pentsamentua lehengo bidera hizatu ditut ametsen munduan murgil zitezen.

Soldadutxoen artean nabilen bitar-tean, joku zoragarriak eskaintzen ditut ezpata zorrotzarekin. Halako batean, arrioaren gezia niregana hurbiltzen dela somatzen dut. *Puf, ban sustat!* Salto batean jeiki naiz ohetik. *Ze ordudat?* 7:55! Lurrean dauden atzoko arropa erabiliak jantzi, eta komunerantz jo dut begiak freskatzeria. Motxilan sartzen ziren liburuak hartu, katiluko esne hotza zurruputa, eta so egin diot erlojuari milagarren aldiz: 7:59.

Atetik atera eta eskailerak binaka jaistearrekin batera, etxeeko zapatilak soinean neramatzala ohartu naiz.

Motxilako liburu artean eskua sartu, eta etxeeko giltzak topatu ondoren, baldarki, atea zabaldut. Gelarantz amen batean abiatu eta bertan aurkitu ditudan lehenengo zapatak jantzi ditut zein koloretakoak diren begiratu ere egin gabe, eta lokarriak zintzilik utziz. Bigarren aldiz jaitsi ditut eskailerak korrika batean. Lokarriekin estropozu egiten nuen era berean, autobus gelto-kiruntz irten naiz aldapan gora.

8:03. Autobusa galdu ote dudan beldurrez, betaurrekodun batir nire kezka azaldu diot. Erantzuna: *Ez al zenuren atzoko txosferak exana entzun?* Gaurko autobusa 10 minutu beranduago iritsiko da. *Ai ama, egia! Karatalitatea, gaunkoa ere neri pasa bebar!*

Alazne Aldanondo

LABUR-LABUR

Internet ikastaroa

Udalak bi Internet ikastaro antola-tu ditu: azaroaren 24tik 27ra bata eta azaroaren 30etik abenduaren 3ra bitartean bestea. Izena emateko epea hil honen 19an bukatuko da (udaletxeen edo kultur etxeen).

Idi probak

Azaro bi asteburutan idi probak izango dira, Udalak antolatuta. Txapelketa azaroaren 6an hasiko da eta bukatu, berriz, 16an. Orduan banatuko zaizkie sariak irahazleei.

ALUSTIZA AUTOBUSAK

Autobus litera eta 16, 19, 25 eta 56 plazakoak. Bidaiatu eta ezkontzeta edo sagardotegira joateko



Aitzpea, 14 Tfnoa: 943 83 42 75



Tfnoa: 943 89 00 56

JAKOBA ERREKONDO

‘Landareak gu baino askoz lehenagotik daude hemen’

Agian zuetako askori Euskadi Irratia landareei buruz hitz egiten duenaren abotsa ezaguna egingo zaizue. Jakoba Errekondo da bere izena eta Aian izango dugu azaroaren 15ean eguerdiko 12etan «Landareei buruzko beste ikuspegi bat» emateko astoz.

MIKEL MARKEZ

Sukaldari ezin hobea izateaz gain likoreak ere egiten omen ditu. Bi gai hauek landareekin

lotura ukaczina dutela kontuan hartzen badu, normala, Jakobari aurrea hartu eta geronek egin diogu bixita lehendabizi, KARKARAko

irakurlenk berari buruz zerbait gehiago jakin dezazu.

Landareen munduan ari zarelaiko ezagutzen zaitu, gehienbat, jendeak. Hala ere, beste zenbait proiektutan ere sartuta zabilta.

Bai hala da. Euskadi Irratian astero jardutea, naiz landareei buruz hitz egiten eta *Etve barruko landarrak* liburua ere idatzia nuen. Iñigo García

de Ulaterkin batera *Euskal Herriko sagarrak* liburua ere egin nuen.

Bestalde, Zeraingo herrian Parke Kulturala sortzen ari gara.

Nola da Parke Kulturalaren kontu hori?

Herrien itxura historian ze-har komunitatearen jardunera ekonomikoak definitu izan du. Parke Kultural bat, egitea gi-



Mikel Markez

zakiz osatutako komunitate baten etorkizuna lantzea da. Parkea, bizidunez osatutako lekuak den aldetik, eta Kulturala, berrie, gizakiek gure kultura egiten dugutako.

Kulturaren aldedi horretan hiru zutabe iruditzentzako garrantzitsuak: alde batetik, iraganetik datorki-gun herentzia; bestetik, kampoko bombardeo mediaticoa eta horri aurre egin ahal izateko moduak; eta, azkenik, sorkuntza.

Hiru elementu horiek aplikatuz etorkizuna lantzea, beraz.

Jakina, Herritxiki guztieta egin beharkolitzatekeen debareada: nor izan garen eta nora guzten.

Eta Aian emango duzun hitzaldiaz hitz eginez, nola kokatuko duzu gaia?

Landareei buruzko beste ikuspegia bat ematen saiatuko naiz. Landare baten biziitzanola den, bere zikloak zein diren eta alar.

Landareak gu baino askoz lehenagotik daude hennen — milioika urte —, eta gu desagertzen, garnean berak hemen jarraituko dute.



Mario Muñoz

Ikupegi binkriliko edo ekonomiko batetik abiatzen ez den sarrera orokor bat egin eta hortik abiatuko naiz.

Kultur etxearen hitzaldia emango du Jakoba Errekondok azaroaren 15ean, eguerdiko hamabietan.

Etu galderai erantzuteko betarik hartuko al duzu?

Bai, bai. Sarrera horren ondoren, libre. Zure nahi do-

zuenari buruz hitz egindo dugu.

Etxe barruko mahiz balkoioko landareei buruz, edo haratza, lorategi, fruta arbel, baso, eta abarrei buruz galderai eta zaintzak baldin badau-de, ni saiatuko naiz horiek erantzuten.

ERROTA



- Eztei ospakizunak
- Bunketeak
- Karta zabala
- Egunekeko menua (lanegunetan)
- Oheak

Tfnoa: 943 83 54 65

KARKARA
EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

Kantabriko berria

Joan den urtean, martxoaren 30ean, bedeinkatu zen Kantabriko berria baporea. Aurrekoak, Siempre madre Cantabriko izenekoak, hogeita bi urte egin zituen itsasoa desguazera eraman aurretekik. Bi bapore banen berri jakiteko, Joxe Mari Azkuterekin izan gara bizketan, nabiz eta gaur egun jubilatua egon.

MIREN ETXEBERRIA

Oraingo bapore berria Zumaiako portuan egin zuten, eta, Orioko Arostegiñean montatu. 190 milioi balio izan zituen bapore berriak, baina lehengoaren motorra jarri zioten eta makina batzuk ere aprobatxu zituzten. Arpalistik genuen berriko armua, izan ere, aurreko baporea, 22 urtetan ikuta ere egin gabe zegoen. Orain, bapore berriko portuan egin zuten denez, berria egitera animatu ginen. Aurreko baporearen motorra eta zeinbat makina aprobatxatu izan ez barenitu. 40 edo 50 milioi gehiago balio izango zituen baporeak. Gaur egun izugarri garegia da bapore berria egitea. Aurreko baporeak 5 edo 6 milioi orduaindu genuen. Aldea izugarria da.

Oraingoak 36 metro luze ditu, 6'80 zabal, eta, 232GT (tona partez, Europako erabiltsuen den neurria). Hiru komun eta 14 tona ur geza, gainera, egunean tona bat urgeza egiten duen makina dute. Jose

Mariren ustetan, aurrekoak etxe zaharra zuten, uraingoa boteldada. Aurrean 10 obo, atzean 4 eta puentean bi.

Beste oriotar askoren antzeria sita arrantzalea zuen Joxe Marik. Harok lebendabiriz. Mirri 'izeneko baporta egin zan, gero, Pepita', eta ni han basi niutzen arrantzalea. Aitonaz esan zen arrantzalea, Nafarroa

troa aldekoa baitzen.

Joxe Mari arrantzale ibili den bapore guztiek gorriak izan dira, baina berria egitekoan, semeek beltza nahi zuten, kolore ilunak garbia-goak direlako. Dena dela, bera ere gustora dagoela esan digu.

ARRAIN BILA

Iaz, bapore berria ondo estreinatu zuten, Azoresetaraino joan baitziren, eta Joxe Mariren esanetan, zeharo frakatu izan zen, ez zuten ezertzearre harrapatu.

Duela 20 urte, garai honetan, Joxe Mari Venezuelatik bueltan zetorren. 78ko maiatzean joan ziren hara eta azaroan bueltatu. Bero izugarria

egin zuten, arraina ezin zen ordubetez ere utzi kubiertan, bestela uzteltzeko arriskua zuten. Halo ere, gustora etorri ginen asko harrapatu gennen eta. Dakarren ere izana da, 57an, Kantabriko zaharra egin zuen urte berean.

EZBEHARRIK EZ

Joxe Mari patroi izan den urteetan ez omen da istripu larririk gertatu, baina gogoratu bere aita zenari gertatu zitzaima. 53an, Gipuzkoan gure aita izan zen anurrekoak begia galtzen. Bi urte lehenago itzori zen karneberarekin atuna burrapatzeko modalitate berria, eta gure aitari gertatu zitzaien Gijonean.



KONTAKIOA

Kantabriko zaharrarekin Bartzelonako portuan sartu ziren batzuk. Ana Santua ikus zuten bertanik.

ALLIANZ-RAX
asegurador



MARIGRE ZALDUA
Asegurador

Berri Ondo, 10 Ibaizain
Tel. 943 13 47 60

ITZIAR
Kirolak

943 83 31 03

OLIDEN
HARRATEGIA

Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

ITZIAR
Kirolak

943 83 31 03

OLIDEN
HARRATEGIA

Eusko Gudari, 2
Tfnoa: 943 83 10 86

ITZIAR
Kirolak

943 83 31 03

AHOIKULARITZA
Fiscal, laboral, kontablea

Eugenio Garmendia
ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17



EUSKALDUN

berriak



ARTURO SANTOS

Arturo 1974 inguruaren torizten Oriora, 14 urte zituera, bere jaioterritik, Badajozzen dagoen Almendralejotik, ama, bi arreba eta hiru anaiekintzat batera. Golkoko kalean jarri ziren bizitzenten.

Oriora etorri aurretik berak ez zekien euskara bazezen ere, ez zuen sekula entzun. Hemen asko harritu zen jendeak, gazteleraez gain, beste hizkuntza bat ere hitz egiten zuela ikusita.

Lehenengo hitzak, euskaraz, azkar ikasi zituen, segituan egindutu kaleko lagunekin. 1981ean gitarra jotzen ikasten hasi zen eliza ondoko saloian, irakasle Patxi Danbolin zuela, eta gogo handia sentitu zuen han ikasitako euskal kantuen hitzen esanahia ikasteko; baina eskolan dena erdaraz ikasten zen, eta euskaltegirik ere ez zegoen garai hartan.

Hala ere, kalean jendearekin pixkanaka ikasten segitu zuen. Icasitakoak balio izan zion Benito eta Mikel Laboaren kantuen hitzak ulertzen hasteko. Drain dela urte batzuk euskaltegian hasi zen, baina lana zela-eta ez zuen denbora gehiegiz eta handik gutxira utzi egin behar izan zuen.

Gaur egun 38 urte ditu eta Santion bizi da Ahorgakoa duen emazte Karmele eta lau urteko alaba Arantzazurekin. Berak dioenez, ez daki euskaraz ondo egiten, gehienekin erdaraz egiten due-lako eta jende gehienak ere hala egiten omen diolako. Baina artikulu hau egiteko berarekin hitz egin genuenean, gure artean euskara hutsez egin genuen.

Gauza bat seguru daki: bere alabak berak baino hobeto ikasiko duela, Arantzazuk eskolan euskaraz ikasten baitu.

Guk badakigu Arturo, Arantzazuren laguntzaz, ahaleginduko dela hobetoxeago ikasten:

Beni
Lertxundi
&
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa
zuzendaria Enrique Ugarte
auhen sinfonikoa

BENITO ETA ORKESTRA

Kalean da Auhen sinfonikoa, Benito eta Euskadiko Orkestra Sinfonikoak grabatutako diskoa. Bertan, orintarraren hamaika abesti oso ezagunak jaso dira eta, nahiz eta hasiera batean jende aurrean egin emanaldia, diskoaren kantak estudioan grabatu dira. Alde horretatik, soinuaren kalitatea oso zaindua da, hainaz, bestalde, Tolosako emanaldia-ren zuzenekoaren berrotasuna falta zaio, agian. CDaren itxura oso da elegantea eta ederra diseinu eta argazkiak aldietik, eta kanten hitzak hiru hizkuntzatan jasota daude: euskaraz, gazteleraez eta frantseset.

Oso zaila izaten da Benitorri protagonismoa kentzea baina, kasu honetan, orkestra eta bien artean banatu egin dut. Kantatzen hasi zenean kitarra xumearekin, Benitoren ahots leun, gozo eta epelak betzen zuen falta zen guztia kantuak hegan egin zezan. Gogortu egin zaio ahotsa, ez da lehen bezain leuna... eta hementxe nabarmentzen da orkestraren lana: habardurak eta indarra, intenzioa eta nota justua berak azpimarratzetan baititu. Benito eta Orkestraren arteko elkarrizketa horixe da: batak besteari entzun eta egoki baino egokiago erantzun, norberak bere errejistrotik, lana primeran borobiluz.

ANA G. DE TXABARRI

ZORIONAK

Jorge Oteizari

Oriolar unibertsalenak 90 urte bete berri ditu, eta, gainera, aspaldiko partez jaiotterria bisitatzen zuen, umoretsu eta sasoiko.

Hori bakarrik ez: Oteizak bere euskal cultura bat eman dio herriari.

Pozgarria da ikustea Oteiza eta Orioko herriaren arteko harremana goxatu egin dela, azken urtentako purrustada giroaren ondoren. Hala jarrai dezala urte askotan!

ZORIO TXARRAK

Schumacher ustekoei (eta 2)

Schumacher ustekoena karta jaso dugu KARKARAn (ikusi gutunetako atala). Gutuna izenperik gabe dator, baina, hala ere, argitaratu egin dugu, nabarmen uztzen duelako karreristanahi horien jarrera axolagabe eta arriskutsua.

Konforme: herrian ez dago zirkuiturik karrerak egiteko. Baina hori ez da, inola ere, aitzakia herriko kaleetan zoro moduan ibiltzeko, eta jendearen bizia arriskuan jartzeko.

Iruntxiberri aiarra irabazole Tolosan izandako desafioan

Urraren 21ean Tolosako zezen plazan Leon Albeniz. Maliz Iruntxiberri aiatik irabazi egin zuen Asteasuko Irazustaren aurka jokatu zuen korrika apustua. Proba hamabi eta erdieta hasi zen eta hamar kilometro (ehun buelta plazari) egin behar izan zituzten. Desafioak ikusmin handia sortu zuen eta jende ugari bildu zen bi korrikalariak ikusteko. Sarrerak 125 pezeta balio zuen.

Iruntxiberriko oso erraz irabazi zuen, 32 minutu justu behar izan zituen proba bukatzeko eta Irazustak, beriz, 34 minuto eta 19 segundo. Iruntxiberriko egindako denbora ordurarteko onenetakoia izan zen horrelako proba batean; bere aurretik bi korrikalariak bakarrik hobetu baitzuten: ingeles batek eta Arruizeko Txikiak (31' 39").

Basarnik bere kronikan zioen kontrarioak estatu izan balu, Iruntxiberriko denbora hobea egiteko aukera izango zuela. Kiroletako orrieta, beriz, azpimarratu zuten Irazustaren marka oso-oso txarra izan zela, eta, horregatik, desafioak ez zuela interes handik izan. Hala ere, lehen esan bezala, jende asko bildu zen ikusmin handiz Irazustak hamabost egun atzeratu zuelako desafio eguna -berez, urriaren 7an izan behar zuen- hobeto prestatzeko-edo. Desafioaren baldintzetan idatzita zegoen gehienez hamabost egun atzeratzea zegoela eta hori eskatzen zuenak eguneko mila pezeta eman behar zizkiot besteari.

Iruntxiberriko 100 mila pezeta irabazi zituen, inoz berak jokatutako kantitatekin handieria. Apostutan dirua Iruntxibernirene alde jokatu zen (ehun berrogeita hamarri).

Iruntxiberriko desafioa bukatutakoan Zarautz-Aia distantzian marka jartzeko asmoa azaldu zuen. Garai batean askotan egiten

orain dela...
**25
URTE**

omen zen proba hori, baina gero ez horrenbeste. Markatik onena ibilbide horretan Errrotazar zarauztarrik zuen (42 minuto). Batzuek pentsatzen zuten Iruntxiberriko 40 minututan egin zezakeela.

Aurreko KARKARA batean azaldu zen bezala, Etxenagusia korrikalaria ibilbide hori egin nahian hil zen, korrikalari atzerritar baten aurka ari zela.

DENBORALDIKO AZKEN ESTROPADEA. Urraren 7an Portugaletean Oriok denboraldiko azken estropada jokatu eta irabazi egin zuen. Kaikuk antolatu zuen estropada hori sortu zenetik 50 urte bete zirela ospatzeko. Hamaika traineruk hartu zuten parte eta hau izan zen sailkapena:

- | | |
|-------------------------|--------------------------|
| 1. Orio A. 20' 37" | 7. Donostia. 21' 31" |
| 2. Lasarte. 20' 57" | 8. Astillero. 21' 34" |
| 3. Santander. 21' 01" | 9. Hernani. 21' 36" |
| 4. Pedreña. 21' 14" | 10. Kaiku. 21' 40" |
| 5. Hondarribia. 21' 16" | 11. Portugalete. 22' 11" |
| 6. Orio B. 21' 28" | |

Urte harten Oriok Kontxa ez beste gainontzeko ia estropada guztiak irabazi zituen. Kontxakoa irabazi izan balute, San Pedroko sei urte segidan irabazita jarri zuen marka berdinduko zuten.

ERREMONTeko TXAPELKETA. Iñaki Sarasua eta Juan Carlos Intxauspe, Juan Miguel Azkue ordezko zutela, izan ziren Gipuzkoako ordezkarriak Espainiako erremonte txapelketan Bartzelonan. Nafarroako Elizalde eta Gernikeren kontra jokatu zuten finala eta galdu, partidu estu batean.

Juan Albizu
elektrogailuak

ETA DRAINI

sukaldeko
altzariak!

Tfnoa: 943 83 12 49

JUANTXO
harategia

Reverencia txekorra,
Especializatu: triplexak, edukiak,
etxe produktuak...

Tfnoa: 943 83 13 37

DORROSORO
JANARIDENDA

Tfnoa: 943 83 13 37

Carmen
Arraindegia

Tfnoa: 943 83 05 37

IRADI

Alto Leitzkundi, 33 Telefax: 943 13 46 96

ANARRI

IBAI-ONDO, 2 · Tel.: 943 83 21 60

Boutique

Yerri giztoko mendeak

Etxepalai kalea, 12 · Tel.: 943 13 28 16

JAIOTAKOAK**ORION**

Irene Osorio Castro, urriaren 26an.
 Haritz Arregi Etxamiz, urriaren 20an.
 Mikel Ibarria Garate, urriaren 22an.
 Nerea Pérez-Oliden Turra, urriaren 26an.

ALIAN

Leire Iruretagoiena Añelika, urriaren 12an.

DUTXAK**HILDAKOAK****ORION**

José Luis Alcántara, urriaren 27an.
 81 urte.
 María Reyes Donatnez Sánchez, urriaren 13an.
 45 urte.
 María Amuri Tamubide, urriaren 21n.
 60 urte.

ALIAN

Pepita Zafra Imauski, urriaren 4an.
 78 urte.

Mikel Ibarria Garate

Mikel Ibarria Garate urriaren 22an jaio zen 3 kg. eta 380 gr.ko pisuarekin. Argazkian arreba Maddirekin agertzen da etxean. Mari Jose eta Imanol gurasoak bezala, osor pozik; dago Maddi txikiarekin. Mimo faltarik ez du izango etxeko errege berriak.

Zuek ere zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia —edo ezkontzakoa— txoko honetan argitaratzea nahi baduzue, bidali eta jarriko dugu. KARKARAREN buzoian utz dezakezue edo, bestela, taldekoaren batí eman. Bat baino gehiago iristen bazaigu, lehenbizi ailegatu zaigunak izango du lehentasuna.

EZKONDUTAKOAK**ORION**

Juan Man Bravo Díaz eta Cristina Blázquez Rojas, urriaren 3an.
 Francisco Zúñiga Cumargo eta María Pilar Señalo Ibarra, urriaren 11an.
 Francisco Javier Ibarguren Gómez eta María Jesús Benítez Sarasa, urriaren 17an.

ALIAN

Uman erdi da ezkontzakik izan.

TREN ORDUTEGIA**DONOSTIARA**

06:16	13:46	19:46
06:46	14:16	20:16
07:16	14:46	20:46
07:46	15:16	21:14(*)
08:16	15:46	21:45
08:46	16:16	22:46
09:14	16:46	09:14
10:16	17:14	10:14
11:16	17:46	11:14
12:16	18:16	12:14
12:46	18:46	13:14
13:14	19:16	13:44

ZARAUZTA

06:14	14:14	19:44
06:44	14:44	20:14
07:14	15:14	21:13
07:44	15:44	22:14
08:14	16:14	00:00 astelkerretik ostiraleira, lanegunetan
08:45	16:45	
09:14	17:14	
10:14	17:44	00:00 egunero.
11:14	18:14	
12:14	18:44	(*) larunbat, igande eta jaiegunetan.
13:14	19:14	

ORTZAİKA
JATETXEA

Bataioak
Jaunartzeak
Despedidak
Ezkontzak

Tfnoa: 943 83 32 51/83 30 46
Ortzaika

Tfnoa: 943 83 32 51/83 30 46

Ondar
ORDUTEGIA

DONOSTIARTE

Abeslari, 4 - Tel.: 943 13 41 70

Tragoxka
Pub

Arizaga, 11
943 13 08 25

NIRE HONETAN

**Schumacherri:
Xabier**

Xabierrek hiru urte zituen. Santu guztien eguna zen orain bi urte. Donostian zegoen gurasoekin. Bazkaitzen arri ziren terraza batean. Halako hiztean Xabier korrika abiatu zen errepi-derantz, sekula jakingo ez dugun zerbaitean atzetik. Xabierrek egin zuen azken gauza izan zen. Automobil hiztekin jo eta hilzorian utzi zuen. Handik hiru hilabetera hil zen, gurasoentzat agonia mingarrin baten ostean.

Gurasoak adiskideak ditut eta heriotzak sekulako zirrara eragin zidan. Geroziak beti sentitzen ditu zerbaite bihotzean, auto istripuetan hildakoaren estatistika anonimo heldorgarriak irakurtzen ditudanean.

'Schumacher'-en karta bat jaso dugu KARKARA. Kartan norbaltek aitortzen du azkar gidatzetan dutela hemi barruan, eta horrela segituko dutela haldin eta Udalak azkar gidatzeko lekuren bat jartzen ez badie.

Eta ezin naiz isilik gelditu automobilaren arriskuaren inkontzentzia horren aurrean. Ondo iruditzen zait leku egoki bat nahi izatea abiaduraz gozatzeko, baina hori lortu ezean herrian belozidade probak egiten segituko dutelako mehatxua ikaragarria iruditzen zait.

Lehen ere Orion izandira hildaknak automobil istripu triste batzuen ondorioz, eta ez da onargaria eskutiztan ageri den ajolagabekera, hilgarria izan daitekeelako.

Herrian haur asko dago, edozein momentutan korrika ateria daitezkeenak. Zuek ez zarete haurrak. Ez zeinukete inkontzentzietak izan behar. Ez nuke Xabierrena bezalakorik Orion nahi.

IÑAKI ITURAIN

**KANPOAN
daudenak****Jose Ramon Lizaso Izagirre**

Jose Ramonek 36 urte ditu eta soldaduzka bukatu zuenetik Orioitik kanpo bizi da. Donostia eta Bergaran bizi ondoren, Gasteiz aldera jo zuen. Leku bat lortu zuen Arkauteko Ertzaintzaren Ikastegian eta ondoren ertzain lanean aritu zen hainbat urtetan. Istripu larri baten ondorioz lan arazo ugari zituen, eta auzi bat baino gehiago ere bai Administrazioaren kontra bere langile eskubideak aldarrikatu zuzten. Auzitegiko erabakia bere aldekoia izan da eta, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako funtzionarioa da, eskubide guztiekin.

Gasteizen ezkondue egin zen eta 7 urteko alaba bat du, Nagore. Honek ikastola batean ikasten du eta aitarekin euskeraz egiten du. Aitak, txantxetan, patatera deitzten dio alabari eta honek ijiotu aitari, Jose Ramon bananduta dago, baina emazte ohi omen du oraindik ere adiskiderik onena eta egunero egoten dira elkarrekin.

Gasteiz oso leku egokia omen da bizitzeko. Parke berde aldetik Europako hiririk onenetako omen da. Bestalde, gizarte aurrerakoia

**99
Alabari
patatera
deitzten dio,
txantxetan;
eta hark,
berriz, ijiotu
esaten dio
berari.**

omen da Gasteizkoa; han aspalditik omen daukate udal aurrekontuanen % 0,7 hirugarren mundurako; eta bikoteen erroldan onartuta omen daude ezkongabeak eta homosexualak. Bitxikeria moduan, eta jaioterna bizilekuarekin konparaturaz esan zigun Gasteizko laudada Kukuarriko tontorra baino altzapeago dagoela.

Ageri du gustora bizi dela Gasteizen, baina sarri samar etortzen da Donostia aldera, gurasoak eta arreba bat bisitatzen eta han faltsan bilatzen duen itsasoa ikustera. Oriora gutxiago etortzen da, baina bere buruari aginduta dio urtean behin gutxienez etorri behar dueña. Etortzen denean afaria egiten du kuadrillako lagunekin Balean edo San Juan Elizpe soziedadean.

Gasteizko jendeasko egon omen da Txurrukako aterpean uda aldean, hori esaten diote, behintzat, bera oriotarra dela jakiten dutean.

Etxean Leon Txanaka aitoria zuenaren 1916ko argazkia duka, trailleruan, Kontxako bandera irabazita, Orioren oroiigarri.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

ORIO

antzinako garaitan (eta 2)

Aurreko KARKARAn basitako artikuluari bukaera emateko, bainbat gai nabarmendu nabi ditut. Ez genuke harritu bebar normandoak bemen izan zirela edo bemen gelditu zirela jakitean. Dakigunez, garai hartan bemen bizi ziren euskaldunak antzeko gauza asko zituzten normandoekin.

ANTXON IBARGOIEN

Gainera, jakina da normandoak Baionan instalatu zirela, hiriari izen anglosajoia emanen lehen galu-erromatarrek *Lapurdum Castrum* izenez ezagutzen zuten gotorlekuari.

Aukera asko dände pentsatzeko, 788. urtean, anglosajoak euskaldunekin batera izan zirela Roncesvallesen (Orregan) Karlomagnoren gudarostea erasotzen.

ANGLOSAOIAK

EUSKAL HERRIKO KOSTALDEAN

Badaude, baita ere, oroitzapen eta dokumentu arabiarrak, adierazten dituenak normandoek inkurtsioa egin zituztela penintsulan barrena (858. eta 861.ean eta abar), Pamplona (Irún) ere erasotuz. Horretarako, nahi eta nahi ez, gure kostaldea lagun behar zuten izan; eta bertako jendeek, hurrealde hau ondo ezagutzen zutenak, orientatu beharko zituzten.

Lorraso y el mar Julio Caro Baroaren liburuan seinalatzen dira posibilitate horiek.

Bermeok Izaroz jabetzeko urtero egiten duen ritoa, teila bat irla inguruari botaz, nor-

mandoek lur berriez jabetzeko erabilizten zuten ritoaren antzekoa da.

NORMANDOEN ERAGINA

Erreten duenez, normandoen influentziagatik irten ginen obskurantismotik, eta erromatarrek aintzakotzat ere hartzearazten zuten herri hau po-

tentzia mundial bat bilakatu zen (burdinlanean, erremientak eta itsasontziak egiten, nabigazioan, merkataritzan, arrantzan eta abar) milurteko honen hasieran.

Nire utez, normandoek euskaldunen gain zenbateko eragina izan zuten jakiteko, hemengo izen, toponimo eta abar batzuk anglosajoaren ikuspuntutik abiaraztuhausnartu beharko genitzuke.

AMEZTI BASERRIA

Bukatzeko, eroetako arriskuan dagoen baserritik baten gain ohartarazi nahi zuke. Eskabadorak sartu baino lehen, komeni litzateke base-

rria eta inguruak aztertzea. Baserrria Amezti da.

Amezti baserria here tur sailen alderdi batean dago; ez da ikusten itsasotik, hainaz inguruko mendi bizkar guztietatik ikusten da. Eta, aditzera denez, ibaiaren inguru horretan ere argollak baziren. Biltzeteke baserri hori seinaleak eskuadre osora bidaltzeko egina izatea, inguruko denak alaramatzeko.

Orain arte hemen esandako guztiak lan hipotesi bat bestetik ez da —ez gehiago, eta ez gutxiago—, eta espero dut inor ez eskandalizatzera, azkenean hipotesi okerra geritzen baldin bada.

ARCILLAS ANTILLAN.

Aurreko KARKARAn argitaraturako argazki bera publikatzen dugutte berri. Ezan ere, imprentako okatu batengarik, testuan aipatzeko zen gizte ez zen azkenean atera. Orain bar, orain gizak markatzeko du non zenden Antillak argollak.





Gerra osteko festa

Argazkia Toki Alaiko terrazan egina da gerra zibilea bukatu eta pixkatetara. Patxadan eta umore onean ari dira kapadrillakoak festak ospatzera.

LEHIAKETA

- 1.- Argazkian azaltzen diren bost lagunen izen-abizenak esan behar dituzue.
- 2.- Galdera: Nondik sortu zuen Jesus M. Peronak Nao Baillenera egiteko egurra?

Erantzunak azaroaren 21ean bidali behar dizkiguzue, helbide honetara: KARKARA aldizkaria Ezetz ezagutu! lehiaketa, Herriko plaza, 1 (Udaletxe atzeko karkara). Asmatzaileen artean afari bat zozenetatu dugu. Afaria Itsas Ondo jatetxeen izango da.

AURREKO IRABAZLEA

Aurreko KARKARA huts galanta egin genuen inork ez zigula idatzi esaterakoan: horrenbeste paper artean guk galdu genituen kartak. Barkamena eskatu behar dugu horregatik eta, jokina, irabazlearen izena eman: Itziar Brit Arruti.

Azken KARKARAko Lehiaketaren irabazlea, berriz, Aitzpea Aldalur izan da eta hona hemen berak emandako erantzunak: Belen eta Alizia Aurizenea, Maria San Sebastian, Resu Aldalur eta Benedicta Eizagirre, bigarren galderarenak: Alto de Campoo.

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN

"Orain baserriko gizon bat gehiago da orduan sei lagun baino"

Jaiotzez Arroako Ibañarrietako da, Urtainen auzo bereko. Ama galdu eta gazte-gaztetatik lana egitea tokatu zitzzion zortzi anai-arrebekoz gazteenari. Baserrian ha-sieran, Donostian neskame ondoren, sukaldari Toki Alain eta baita eskabetxerian ere. Jubilatu-ta ere lanean jarraitzen du, denbora-pasa, Orioko Eskola ondoko baratzan.



MARIA ARISTI
87 urte

Soroko lana oso nekosoa zen. Orain traktorean aidean egiten dira, ez dago ganadurik, idirketa ez dago orain. Orain bi erreminta bakarrik daude, baina orduan besabek, bost hortzekoa, lau hortzekoa azkenean zokor jotzen mazoarekin geroni. Lan asko, lan asko. Gaur egun baserriko gizon bat gehiago da orduan sei lagun baino. Goizeko 5:00etan jeikitzen ginen sorora joateko, ez zegoen aitzakiarik. Bizi beharra zen, baina bizi behar maitia.

Goldkarekin ezin zenean laiaren jarduten ginen. Sel edo juntatzen ginen, bakoitzak bi hartz, eta lurra bueltatzen genuen. Oso erraminta polita da. Lurrari buelta eman, gero besabea pasa eta pixka bat gozatzen zenean hazia botatzen genuen: babarruna, artoa... Oraindo aldean artoa eta babarruna asko izaten ziren. Amospera asko galdu da. Garia dezente izaten genuen, asko. Gu

gorritzen ziren terreno en erdiak gari eta beste erdiak artoa, babarruna eta baba txikia izaten genituen. Gari pila handia izaten genuen. Garia Txiki-Erdiko bueltako errrotara eramatzen nuen, astoarekin: astoarekin, ttapa-ttapa.

Neroni esnea erosten hasi nintzeanen hiru txakur txiki pagatzten nituen. Perra handi bat izaten zen hamar xentimoko, zabal-zabala. Harek txakurraren forma edukitzet zuen bamernean, animaliboa bat zeukan, txakurra bezalakoa. Perra handia esaten genion hamar xentimokoari eta perra txikia bost xentimoko txanponari. Nik orduan hiru txakur txikiren esnea erosten nuen. Ogia pezeta bat eman eta emial bat bueltan atzera, sei librako ogia. Egunen eguneko ogia tokatzen zenean doble jaten genuen.

Eskabetxerian ere lana egindakoa naiz urte askoan, Dientisen. Han hamabost urtean edo egin nuen lana. Jende asko ibiltzen zen eskabetxerian lanean. Eskabetxeria gauza ona da, lastima da galdu dela eskabetxeria. Eskabetxerielak diru asko ematen du. Pena da emakumeak txanpona hola galtzea. Emakume asko, gazte asko sartzen zan eskabetxerian. Gero mutil koskorrek eta neska koskorrek udaberriñan al daki buruak kentzen zenbat txanpon eraman zituzten etxera! Orduan denaren premia zegoen eta. Orduan gutxi irabazten zen, baina lasai bizi jendea eh! Orain balio egoismo guztiago zegoen. Orduan pezta bat ebbean edukita eta zorrik ez, oso elegante.

PUBLICITATEA EGITEKO MODUAK ETA MODUAK

Bada enpresa bat, Durango kokatua, beste guztiegandik gailentzen dena, bere publicitatea kultural, euskaran, kirolan eta abarreko kontaezin ahala ekintzatan agertzen delako. BAQUE etxean naga. Emilio Baqué Delfás jaunzakin gaude (Cafés Baqué enpresako Zuzendaria)

Galdere: Emilio, euskaren aldeko topaketa eta bilgune handi guztietan ikusten zaituztet -Kilometroak, Bihildia, Herri Urrais... Zergatik hori? Euskara maite duzuelako ala errentagarritasunagatik?

Emilio: Egia esateko, hasiera batean lagunza bat ematea beste asmorik ez genuen, euskaran diri lagunza ematen. Baina, honelako hainbeste eta hainbeste ekintzatan egon ondoren, azkenerako, simpatiagatik edo esker onez, errentagarri ere badela uste dugu.

G. Zentzu honetan ze nolako beste ardurak dituzue?

E. Euskarazko argitalpenen literatura sarietan eskuhartu izan dugu, IRUNA Saria. Urtero Durangoaldeko Antzerki sariu eman ohi dugu, abesbatzen hainbat disko lagundu eta argitaratu ditugu eta Euskal Herriko Historiari buruzko liburuzk ere argitatu izan ditugu.

G. Bai telebistan eta bai kalean, BAQUE kamiseta eta txandil ugari ikusi ohi dugu...

E. Hala da, Saskibaloian, Txirrindularitzan eta Pilotan batez ere. Orain dela 25, 20 eta 12 urte hasi ginen, batean eta bestean. Atletismoan, Arraunean eta beste kirol batzuetan ere sartzen gau gure shalgintsoa jartzet, baina hori bai, beti zaletasunezko eta oinarrizko kirola da guk bultzatzen duguna.



Emilio Baqué,
Cafés BAQUEko
Zuzendaria

G. Salzeeko garaian Euskara asko erabilizten duzue. Errenta-garia al da?

E. Beti ez ditugu gauzak errengurritasun hutsagatik egiten. Motibazio ugari dira gehien bat euskal giroan ibiltzen eta mezua euskaran ematera bultzatzen gaituztenak. Azkenerako denak du here ordaina, nahiz eta iristen zertxobait denbora gehiago behar izan.

Cafés Baqué gaur gure aldizkarian azaltzea, beste enpresa batzuentzat pizgarri izatea nahi genuke.

Zabaldu bedi credua.

